

KUTXA Enplegatuen Elkarte	XENDA ZALETASUN atala
103. zka. 5 Euskal Hiribururen Zeharkaldi Handia	14. etapa/Opakua mendatea – Sta. Lutzia mendatea 2014-3-8/9

Adiskide xendazaleok:

Egutegi berri honen lehenengo etapak Opakuako mendatetik Azazetako mendatera eramango gaitu. Aparkalekutik pagadira sartuko gara eta pixkanaka Arrigorristaren gailurrera (1143m) eramango gaituen desnibela gaudituko dugu. Mendi hau Iturrieta mendietakoa da, eta zehatzago esanda Entzia mendietakoa. Ikuspegi zoragarriak ditu “Arabako Lautada”ren gainean, baita Urkilako eta Altzaniako mendien gainean ere.





Gailurrez gailur jarraitu eta handik gutxira lurralde soildura irtengo gara. Uhindura arin batzuekin, eguneko bigarren kotara iritsiko gara, Atxuri gailur soildura, Larreder gisa ere ezaguna (1102m). Handik, eta gailurrean aurrera, ikuspegi ederrak izango ditugu bai hegoaldera (Iturrieta) eta bai iparraldera. San Joan mendatera iritsiko gara, Egileorretik Onraitara doan bide zaharra zeharkatzeko.

Hain zuzen ere, Egileorretik egiten da igoera klasikoa Sta Elenaraino (1110m), gure hurrengo gailurreraino. Sta Elena Iturrietako mendietan dago eta zehatzago esanda Alaiza herriaren gainean.

Gailurrean aurrera jarraituko dugu Luzkando mendatera jaisteko. Gero beste igoalditxo bat Zorrikobaso (1083m) gailur txikiraino. Eta ibilian jarraituko dugu gailurrak eratzen duen txirrista leunean aurrera. Honek Gereñuko mendateraino (673m) eramango gaitu, eta aurreraxeago Sta Lutzia mendatera.

Handik aurrera pixkanaka Indiagana (1101m) gailurrera igoko gara, eta beheranzko joerarekin azken zatia egingo dugu, Azazeta mendateraino eramango gaituelarik, igarobiderik garrantzitsuen Arabako Lautadaren eta Mendiaren artean.

Animo, xendazaleok, natura zain dugu-eta!!!

Ibilaldia:		Opakua	mendatea-Azazeta		mendatea		
Beharrezko denbora		5,15					
Goranzko desnibel metatua		940 metro					
Beheranzko desnibel metatua		1050 metro					
Zeharretara egin beharreko distantzia		19.275 m					
 Ingurunea	1	 Orientazioa	1	 Joan-etorria	1	 Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:40
Irteera-ordua	07:45
Bazkaria	Alai jatetxea
Prezioa	28 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-3-6ko 12etan

Oharra: Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra izango balitz, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira: alahuerta@kutxabank.es / jlurretabezkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabezkaia-Gipuzkoa Sarea-5700). Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.